


## Pedro M. Uribe-Echebarría Díaz (1953–2013), VIT herbarioaren sortzailea

Planetako leku jakin baten historia botanikoa liburu askotan egoten da idatzita, baina, historia hori egiaz aztertu, haztatu eta ikusi nahi izanez gero, herbarioetara jo behar da. Herbario bat zinez da ondare bat, ez zientziakoa bakarrik, baita kulturazkoa ere, ordezkatzen duen eskualdearen kultura ere jasotzen baitu, alegia, bene-benetako altxor bat, non plegu bakoitzak baitarama lurraldea aztertu duten botanikoen egintza gogoangarrien lekukotza, zeren eta eskualdearen ikerketa dokumentatzen duten landareen laginak baitaizka gordeta. Herbario bat egin eta zaintzeak lan asko dakar, hasi planifikaziotik eta landa ingurura egin behar diren irteerak egitetik eta pleguak prestatzeraino, nahiz bilketa, identifikazioa, lehortzea, etiketatzea eta abar.

Zientzialarien ustean, herbario baten plegua lehenbiziko aldiz egin zuen lehen botanikoa Luca Ghini italiarra izan zen, XVI. mendean, hain zuzen; beste batzuen ustez, ordea, pribilegio hori Andrea Cesalpini zor zaio. Gaur egun, 1800 herbario baino gehiago daude mundu osoan. Horiei buruzko informazio guztia Index Herbariorum delakoan dago jasota: lan horretan, herbario bakoitzari sigla berezi bat ematen zaio. Euskal Autonomia Erkidegoan dago herbario horietako bat: VIT du izena, eta 1975 eta 1980a bitartean sortu zen, Pedro Uribe-Echebarría izan zelarik haren bultzatzaile nagusia. Herbario bateko aleak tresna indartsua dira landareen mundua ikertzeko, eta halaxe herbario hau ere, funtsezkoa da Euskal Herriko eta haren inguruneetako landaretza ezagutzeko.

Arabako botanikaren historia, beharbada, XVIII. mendean hasi zen idazten, Xabier de Arízaga (1748-1830) eta Lorenzo Prestamero (1733-1817) botanikoen eskutik, baina, zalantzarik gabe, Pedro Uribe-Echebarría idatzi du historia horren zatirik handiena, berak bakarrik edo beste botaniko naturalista batzuekin batera, hala nola Luis Antonio Pérez de Heredia, Juan Antonio Alejandro, Iñaki Zorrakin, Pello Urrutia, Carlos Aseguinolaza eta abar eta abar. Herbario bat landu eta elikatzea nahikoa ez-eta, 200 dokumentu inguru idatzi zituen: artikulu, liburu, txosten eta beste. Euskal Herriko botanikan izan zuen garrantzia nabarmena da, osagai esanguratsua izanik hainbat obratan, hala nola Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Flora Katalogoa (1984), Euskal Autonomia Erkidegoko Landaretzaren Mapa (1992), edo Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde mugakideekiko Floraren Gako Marrazkidunak (1999), guztiak ere funtsezko lanak Euskal Autonomia Erkidegoko botanikan hasi nahi duen edonorentzat. Baina, zalantzarik gabe, botaniko horren arrastoa nabarmena izango da betirako VIT herbarioan eta beste hainbat botanika bildumatan, zeren haren izena 26 espezie, azpi-espezie edo landare bariaterekin baitago lotuta, berak lagundurik izena ematen eta munduan ezagutarazten.



## Pedro M. Uribe-Echebarría Díaz (1953–2013), creador del herbario VIT

La historia botánica de un lugar determinado del Planeta está escrita en muchos libros, pero donde realmente se puede estudiar, palpar y ver esa historia es en sus herbarios. Un herbario constituye un verdadero patrimonio, no sólo científico, sino también cultural del área que representan, un verdadero tesoro, donde cada pliego es testigo de las diferentes gestas llevadas a cabo por los botánicos que han estudiado ese territorio, ya que posee los ejemplares de plantas que documentan la exploración del mismo. Poner en marcha y mantener un herbario conlleva un buen número de actividades, desde planificar y ejecutar las diferentes salidas de campo, hasta la preparación de los pliegos, incluyendo además la recolección, identificación, secado, etiquetado, etc.

Los científicos consideran que el primer botánico que llevó a cabo un pliego de herbario fue el italiano Luca Ghini en el siglo XVI, aunque otros expertos atribuyen dicho privilegio a Andrea Cesalpino. Actualmente existen más de 1800 herbarios por todo el mundo. Toda la información respecto a éstos se halla en el Index Herbariorum, obra en la que a cada herbario se le designa con una sigla particular. En la Comunidad Autónoma del País Vasco uno de estos herbarios, es el denominado VIT, cuyos orígenes hay que buscar entre los años 1975 y 1980, siendo su principal precursor el botánico Pedro Uribe-Echebarría. Si los ejemplares de un herbario constituyen una herramienta muy importante para la investigación del mundo vegetal, sin dudas este herbario es clave para el conocimiento de la flora y vegetación de Euskal Herria y su entorno próximo.

Quizás la historia botánica de Álava comenzó a escribirse en el siglo XVIII por botánicos como Xabier de Arízaga (1748-1830) o Lorenzo Prestamero (1733-1817), pero no hay duda de que Pedro Uribe-Echebarría ha escrito buena parte de esa historia, sólo o junto a otros botánicos y naturalistas como Luis Antonio Pérez de Heredia, Juan Antonio Alejandro, Iñaki Zorrakin, Pello Urrutia, Carlos Aseguinolaza y un largo etcétera. Si crear y alimentar un herbario no fuera ya suficiente, además ha escrito más de 200 documentos entre artículos, libros e informes. Su importancia en la botánica vasca queda patente al ser parte significativa de obras tan interesantes como el Catálogo Florístico de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa (1984), el Mapa de Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco (1992) o las Claves Ilustradas de la Flora del País Vasco y Territorios Limítrofes (1999), obras básicas para cualquiera que quiera adentrarse en la botánica vasca. Pero sin duda, la huella de este botánico estará patente de por vida en el herbario VIT y en otras muchas colecciones botánicas, ya que su nombre está ligado a 26 especies, subespecies o variedades de plantas, a las que él contribuyó a poner nombre y darlas a conocer al mundo.

